

KULTURA TRINITATE JAIAK · GEHIGARRIA HAUNDIREN IGOERA ARGAZKITAN  
KIROLA MINTXETAKO IGERILEKUAK EKAINAREN 12AN IREKIKO DIRA

# BARREREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko ekainaren 4a/XII. urtea/491. zkia



3. Mailako talderik HAUNDIena

# Belaustegi Baserria



## JATETXEA



# 5. urteurrena

## Menu berezia

Ekainaren 7tik 13ra arteko astean ospatzeko

Etxeko aperitiboa

Baratzuritako gulen entsalada epela

Ahuntz gaztatxoa ahate-urdaiazpiko, oliba olio eta sesamoarekin

Bakailao kokotxak piperradarekin

Solomilloaren xamurrena basa gerezien saltsan



Postrea: Belaustegi berezia



Edaria eta kafea 35 (+bez)



*Eskerrak  
guztioi!*



San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02



## Europa

Egunotan inoiz baino argiago ikusi dut: urruti sentitzen dugu Europa, ez digute ondo saldu proiektua. Europak ez gaitu erakartzen, ez dugu bihotzean sentitzen, ez dakigu zehatz-mehatz zer den, han onartutako lege batzuk gudan eragina dutela jakin badakigun arren. Europarrak gara eta harro gaude? ba ez, halaxe gara eta kito.

Europako hauteskundeen kanpainan gaude, eta Europa arazo guztien konponbidea izango dela esan digute. Baina hauteskundeon aurrean ez dago inolako emoziorik, ez aldekorik ez kontrakorik. Entzefalograma plano da.

Norbaitek ba al daki diru eta merkatu kontueterako Estatuaren elkarrekin izateaz gain Europa besterik ba ote den? Eurovisionek eta

Eurokopak ikusle asko eta asko biltzen dituzte telebista aurrean, hemen Euskal Herrian ere bai, baina ez dut uste horrek Europarekin zerikusirik duenik. Orain arte eraiki duten Europan interes ekonomikoak agindu dute. Ez da jendeari eta herriei begira egindako proiektua, argi dago, bestela gure jarrera ere bestelakoa izango litzateke.

Kanpaina aspergarri honetan ez da ezer berririk gertatu. Oraingoan ere legez kanpo utzi dute milaka lagun aukera politikoa. Arazoak berba eginez eta politikaren bidetik konpontzen direla defenditzen dutenek ez diete horretarako aukerarik utzi nahi.

Europa lanerako, oporretarako eta hizkuntzak ikasteko tokia da gehienontzat. Zer bestela?

Montse Arregi



## Urrutiko intxaurrak...

Uda heltzean dago eta gehienok hasiak gara jadanik oporretako bidaietan pentsatzen. Nahia eta gogoak ez zaizkigu falta baina gure poltsikoak mugak jartzen dizkigu. Batzuek hondartza, beste batzuek mendia eta falta direnek hiriburuak eta asfaltoa nahiago dituzte. Eta beti atzerrira begira jartzen gara. Atzerriak Euskadik eskaini ezin dezakeena duela ematen du, baina azken bolada honetan Euskadiko hainbat lekutan ibili ostean, eta benetan, beste edozein lekutan dauden adinako paraje eder eta zoragarriak dituela konturatu nahiz.

Gehienok, eta oker banago barkatu, atzerriak dituen lilurak bidai agentzietan edo telebistan ikusitakoari edo beste batzuen ahotan entzundakoari esker ezagutzen ditugu. Ez ditut atzerriak dituen leku zoragarriak mesprezatzen, baina kasu askotan interesgarriak egiten zaizkigu.

Eta sarri gure ingurunea ez dugu ezagutzen eta aldiz, atzerriko herriei buruzko informazio ugari dugu. Baina gaur egun, internet bidez, gure inguruneko informazio pila bat aurkitu dezakegu eta aukera erakargarriak ditugu. Baina pertsona bakoitzaren oporrak dira eta erabakia errespatagarria da, nahi duena egin dezake.

Jokin Martinez

Kexak.....	5
motZ MotZ.....	8
kulturA.....	18
kiRolak.....	19
aGenda.....	24

## MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEAREN ESKER EMATEA

Morkaiko Mendizale Elkartek Elgoibarko Mendi Itzulia antolatzen lagundu zuten guztiei eskerrak helarazi nahi dizkie: Eroski, Netto, Idarraga Kafeak, Julio Bueno Ardoak, Ibartxiki ardoak, Pilar eta Bollar fruta dendak.

Harategiak: Armueta, Manu Iraola, Sahatsu, Patxi, Ziarda, Fraile, Landa eta Dori Txarkuteria.

Karakate Elkartea, Kalamua Elkartea, Iñaki Beristain, Valentín Txurruka, Jaime Martínez, Altolako Urak, inguruko baserriarrak eta batez ere Irunabe eta Euba Txiki baserriak. Hauez gain, Beristain, Lanbroa, Ibarrenea okindegia eta Udaleko brigada. Honez gain, parte hartzaile guztiak ere eskertu nahi genituzke. Mila esker guztioi eta hurrengo urtera arte.

### Morkaiko Mendizale Elkartea

## JOSU LARIZ ASKATU, ESTRADIZIORIK EZ

Elgoibartar guztiei gogoratu nahi diegu, datorren Ekainaren 8an hasiko dela Josu Larizen estradizio epaiketa eta horren harira, Argentinan duen abokatuak (Nazioarteko Konferentzia izan dela eta Euskal Herrian egon dena) eman dizkigun azken berriak azaldu nahi ditugu. Estradizio eskaera bat atzera botatzeko hurrengo egoeretako bat ematea nahikoa da: urte kopuru bat iragan izana non auzia itxiztat ematen den, pertsona bat ezin dela epaitu bi aldiz auzi berdinatik, auzi politiko bat ez izatea eta eskaera egiten duen herrialdean bere giza eskubideak bermatuko direla (tortura...). Hala, Josuren kasuan laurak betetzen dira eta beste ilegalitate ugari ere eman dira, besteak beste Uruguaitik Argentinarako kanporatzea. Horrela, epaileak ez du defentsak aurkeztu duen froga bakar bat ere onartu (frogatua dago ere Josuk ez zuela salatzen duten ekintzan parte hartu, testigantzak, laneko fitxatzea...) eta argi dago espainiar estatua Josu ekartzen tematu dela, horretarako hamaika trikimailu egin baititu jada, bere gorroto politikarekin jarraituz, Uruguain bizitza eginda zuen altzolatari honen bizitza erditik apurtzeko. Abokatuak honako konparazioa egin zigun, epaiketa, Mike Tysonekin eskuak atzean lotuta edukita borrokatzea modukoa izango zela... baina ondoren hurrengo gehitu zuen, horrelako epaiak kaleko mobilizazio eta borroka irabazten dituela eta Argentinako herriaren aldetik hori segurtaturik genuela. Bertan egin diren ekintzak, atxikimenduak etab. entzutean hunkitu egin ginen, jendea "bidali" behar zutela Josuk bisita gehiegi zuelako, Argentinan urte eta erdi baino ez daramanean. Herritar eta elkarte ugari (baita udaletxeak ere) eskatu duten modura berriro eskatzen dugu Josu Larizen askatasuna eta epaiketaren inguruan egingo diren ekintzetan parte hartzera deitzen ditugu herritarrok.

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua



# Urruzunoren begi ezkutua Bizirik gaudete?

Hilda bizi?

Hil ala bizi.

Bizi!

Euskal Herria bizi.

Egunero biziz, bizi-bizi, herria bizi!

Etxeko sukaldetik hasi ta kalean, mendi tontorrian, zeure jendia topau, ta zeuon bizitza bizi! Barrutik hasi ta bidia aukeratzuz, independentzia(z) hipokresiarik gabe, bixi-bixi! bizi!

Taupaden mugimendu egonkorra nahikoa al da bizitza antzemateko?

Heriotzean bizitzerik ba al da?

Bizitzen ikasi egiten al da?

Jaiotzen garenetik al dakigu bizitzen?

Ba al dakigu nondik gatozen? Non jaio ginen?

Batzuek badakigu nora joan nahi dugun?

Bixi- bixi, etxetik hasi ta Euskal Herrian, geure senak gidatzen gaittuan moduan, askatasunez. Independentzia, independentziaz, independentzian eta libre. Hori da bakar-bakarrik, euskaldunok, etxeko sutik hasita, lortu nahi doguna.

Etxeak bakarrik eraikitzen al dira? Eta kaleak? Auzoak? Herriak?

Nolakoak dira zeure taupadak? Geuriak? Eta geure Euskal Herri maittiarenak ?

Posdata fever: Herria da gorputza, HIZKUNTZA BIHOTZA.

Tik-tak, tik- tak. Gora bihotzak!

Amaia Urzelai

ASTEKARIA

# BARREN

**Nafarroa enparantza, 2**  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
**Publizitatea:**  
☎ 943 74 37 04  
**Faxa:** 943 74 37 04  
**E-posta:**  
barren@topagunea.com  
**Helbide informatikoa:**  
www.topagunea.com/barren  
ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILEA** Ainhua Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhua Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. **AZALEKO ESAERA** ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.175 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.


**KEXAK**

◆ Herritar batek esan digunez, **Errosario eta San Bartolome kaileen artean dagoen karkaba oso zikina dago**, eta zikinkeria hori kanpora ateratzen da: “San Bartolome eta Errosario artean dagoen pasabidea zikinkeriaz beteta egoten da. Karkabatik labezomorroak eta arratoiak ateratzen dira kanpora, eta askotan, inguruko dendetan sartzen dira. Dagokionak karkaba garbitu beharko luke lehen bailehen”.



**TXALOAK**

◆ **Ikasle batzuk Ana Ansola Musika Eskolako irakasleari eskerrak eman nahi dizkiote, beraiekin izandako jarreragatik:** “Eskerrik asko Ana gurekin izandako dedikazioa eta eman diguzun kariñoagatik. Muxu handi bat guztion partez”.



◆ **Elgoibar Ikastolak zorionak eman nahi dizkio Danobat enpresari bere 50. urteurrenean,** besteak beste, enpresa kooperatibo honek egungo Ikastolaren eraikuntzan izan zuen protagonismoa gogoratuz: “Danobatek eman zuen 3.000 m<sup>2</sup>tako orubeak animatu zituen orduko elgoibartarrak elkarrekiko kooperazioz Ikastolaren eraikuntza osoari ekin eta 1976an burutzera. Elgoibar Ikastolatik bitzita luzea opa dizuegu.”

◆ Herritar batek **Haundiko jokalaria txalotu nahi ditu, mailaz igotzea lortu dutelako:** “Zorionak guztioi 3. Mailara igotzea lortu duzelako. Ea aurrerantzean maila horretan mantendu eta ahal bada 2. B Mailara igotzea lortzen duzuen”. Era berean, kexa txiki bat ere azaldu digu: “Igandean ez zuten txapligorik bota herrian, eta ez ginen enteratu ere egin Elgoibarrek irabazi egin zuenik. Elgoibarren gelditu ginenok txapligo hotsaren zain geunden, beraz, galdu egin zuela pentsatu genuen. Hurrengoan kontuan izan, mesedez”.



# BAZEN BEHIN PALAZIO

*Gazteenek ez zenuten ezagutzeko aukerarik izan, baina gaur egun Ubitarte plazan dagoen parke beltzean palazio eder bat egon zen behinola. Frantses estiloko lau solairuko eraikuntza ikusgarria zen, dorre eta guzti. Izen askorekin ezagutzen zuten elgoibartarrek: Aiziarraganeko Palazioa, Palmeren etxea edo Indianoaren etxea gisa, alegia. Inork gutxik dakien arren, "Villa Ansola" zen duela 35 urte inguru bota zuten etxearen jatorrizko izena. Honen lekuko sarreran urte luzez egon ziren V.A. inizialak. Orain arte ezer gutxi genekien palazio honi buruz, baina Vicente Ansolak bere jatorriak ezagutzeko egin duen ahalegin eta ikerketak hainbat datu argitu ditu. Familiak gordetako idatzietan birraitonak, Vicente Ansola Aranberrik, eraiki zuela etxea 1885. urte inguruan ageri da. Familia bati dagokion istorioa izatetik Elgoibarko historiaren parte izatera pasa da "Villa Ansola".*



**VICENTE ANSOLA ARANBERRI (1834-96) - SATURNINA VIGNEAU ESCORIAZA (1861-1931)**

-1880. urtean ezkondu ziren. 30 urtetik gorako aldea zegoen bien artean eta 5 seme-alaba izan zituzten.

-Jose Ansola eta Josefa Aranberriren semea; Vicente Ansola Aranberri Ermuaran San Lorentzoko baserri batean jaioa zen. (Baliteke Aiziarraga izatea baserriaren izena. Egun Mausitxa baserriaren ondoan daude Aiziarraga baserria izan zenaren aztarnak). Saturnina Vigneau, berriz, Tolosan sortua zen, baina aita frantziarra zuen.

-Vicente Ansola Aranberrik, garaiko euskal baserriar mordoak moduan Ameriketara joan behar izango zuen bizimodua ateratzera. Kuban dirutza handia egin ostean itzuli zen Euskal Herrira, garaiko indiano askok egin zuten lez. Ozeanoaz beste aldean lortutako aberastasunarekin palazio ikusgarria eraiki arazi zuen Elgoibarren. Emaztearen jatorria izan

daiteke Frantziar estiloko etxea eraiki izanaren arrazoia. Estilo honetako etxeei Hotel deitzen zaie Frantzian.

-1885-1990 urte bitartean hasi ziren Villa Ansola eraikitzen, garaiko 40.000 pezetako kostua izan zuelarik.

-Palazioa amaitu eta berehala hil zen Vicente etxean bertan, 1896ko azaroaren 11n.

-Saturnina Vigneu geratu zen etxearen jabe eta 5 seme-alaben kargura. Dirudienez, jokoan egindako zorren ondorioz galdu zuen etxea 1920. urte inguruan. Debako eta Biarritzeko Kasinoetan jokatzeko ohitura zuen eta legendak diotenaren arabera, gehiago ere galduko zuen Donostian zeukan etxea semeen izenean egon izan ez balitz.

-Etxea Rementeria familiaren eskuetara pasa zen. Hauek Luis Mazzantini elgoibartar toreatzaile ezagunarentzat erosi zuten, baina ez zen sekula bertan bizi izan.

**VICENTE ANSOLA VIGNEAU (1893-1946)**

-“Villa Ansolan” jaio zen, aita hil baino 3 urte lehenago. Frantzian egin zituen ikasketak eta frantsesez ere berba egiten zuen. Ansola abizena mantendu zuen bakarra izan zen, hiru arreba baitzituen eta beste anaiak ez baitzuen ondorengorik izan.

-Asko bidaiatu zuen eta Galizian eta Kantabrian bizi izan zen. Oporretan Alcedako (Kantabria) bainuetxera joateko ohitura zuten. Hantxe harrapatu zuen gerra zibilak. Erdi ezkutuan ibiltzera derrigortu zuen gerrak eta Kantabrian finkatu zen.

-“Villa Ansola”k ere jasan zituen 1936ko gerraren ondorioak. Bomba bat etxe gainean jausi eta kristalez egindako begiratoki ikusgarria suntsitu zuen.



**VICENTE ANSOLA CRUZ (1931-2000)**  
eta **GLORIA TRUEBA**

Vicente Ansola Cruz Alcedan (Kantabria) jaio zen. Kantabrian peto-petoa izan arren, bazuen Elgoibarren berri eta aitari askotan entzun zizkion gure herrian familiak izan zuen palazio zoragarri bati buruzko istorioak. Berak semeari kontatu zizkion.

# DO BAT ELGOIBARREN...



## VICENTE ANSOLA TRUEBA ARGAZKILARIA

### SUSTRAIEN DEIA

Nor naiz eta nondik nator? Galdera unibertsalei erantzunak topatzeko garaia zela pentsatuz, sustraiak bilatzeko ikerketari ekin zion. “Ansola abizena arraroa da Kantabrian eta Estatuan ere ez da ohikoa. Hortaz, betidanik izan dut nire jatorriaren berri izateko kuriositatea. Bestalde, aitari aitonak kontatutako gauzetatik zer ote zen egia eta zer fantasia egiaztatu nahi nuen”. Batez ere, etxe handi haren kontuek liluratu zuten.

Argazkilaria izanik, Julian Azkue herriko argazkilariarekin kontaktuan jarri zen eta hark lagundu dio bere ikerketan. “Nahiko erraza egin zitzaidan birraitonak eraiki zuen etxeari buruzko zerbait jakitea, oso ezaguna baitzen herrian. Dena dela, ezer gutxi zekien jendeak etxearen inguruan, hau da, nork, noiz eta zergatik

eraiki zuen. Elgoibarko historiarako baliagarriak izan daitezkeen datuak azalerratu ditudala uste dut”. Etxeaz aparte, birraitonaren panteoia ere aurkitu du kanposantuan eta aitonaren nahia bertan ehortzia izan zedila zenez, lan horretan dihardu une honetan.

Vicente Ansolak ansolatar bat Elgoibarrera itzuli izana ospatu nahi izan du eta arbasoei eta hauen jatorriari, Elgoibarko herriari, alegia, omenaldi bat egin nahi izan die. “Ni ez naiz Euskal Herrian jaioa eta ez dakit euskaraz, baina hau guztia nire parte bat ere bada, eta hemen etxean banengo moduan sentitu naiz. Nire ogibidez baliatuz omenaldi modukoa prestatu dut”. Elgoibartik zehar pasiar bat argazki erakusketaren bitartez gauzatu du Omenaldia.

**A**lcedan jaioa. Argazkilaria da lanbidez duela 25 urtetik eta argazkilaritza dendak ditu Santanderren. Honez gain, hainbat sari irabazi, argazki liburuak argitaratu eta makina bat erakusketa antolatu ditu, azkena Chicagoko Cervantes Institutuan 2003an.



### Elgoibartik zehar pasiar bat

Bi goizetan Elgoibartik pasiar bat eman eta ikusitakoaren arabera Elgoibarko txokoek sorrarazi dioten lehen inpresioa argazkietan islatzen saiatu da Vicente Ansola. Emaitza “Elgoibartik pasiar bat” argazki bilduma izan da. Formatu digitalean ateratako 24 argazki guztira. Argazkiok Kultur Etxean izango dira ikusgai ekainaren 13ra bitartean.

## Zapatuetako "boteilo"ari amaiera emateko alkoholaren kontrako ordenantza berria onartu du Udalak

3.000 eurora arteko multak jarriko dituzte toki publikoetan edateagatik

Joan zen ostiraleko Udal Plenoan aho batez onartu zuten larunbatetako "boteilo"ari amaiera emateko ordenantza berria. Elgoibarko herriak pairatzen duen arazoari irtenbidea eman nahian ari da Udala, eta hau izango da hori lortzeko pausu garrantzitsuenetariko bat. Ordenantza berri honetan Herri Korporazioen obligazioak eta alkoholdun edarien salmentaren, publizitatearen eta kontsumoaren inguruko hainbat debeku eta muga ezartzen dira.

Elgoibarren zapatuetan kontsumitzen den alkohol kantitatea oso altua dela ikusirik, eta batez ere, kontsumitzaileak gero eta gazteagoak direla kontuan izanik, onartu du Udalak ordenantza berri hau. Honen arabera, "instituzionalizatutako drogatzat joko dira edozein graduaziotako edari alkoholdunak, menpekotasuna eragiteaz gain, osasunari eta pertsonen ongizateari kaltea sor diezaioketen sustantziak direlako".



### 3.000 eurora arteko isunak

Toki publikoetan edatea eta adin txikikoei alkoholdun edariak saltzea galarazten du ordenantza honek. Hau kontuan izanik, isunak hiru taldetan bereiztuko dira: arinak (600 eurora arteko isunak), larriak (600 eta 1.500 euro bitartekoak) edo oso larriak (1.500 eta 3.000 euro bitartekoak). Marivi Agirregomezkorta alkateak adierazi zuenez, "helburua alkoholaren

kontsumoa eta bidegabeko salmenta gutxitzea da, eta ez 3.000 euroko isunak jartzea". Legea betetzen ez duten adin txikikoei isuna ordaindu beharrean ordezkotza jardunak egiteko aukera izango dute; heziketakoak edo gizartearen onerakoak, baina betiere, gurasoak jakinaren gainean jarriko dira.

### Informazio eta orientazio kanpainak

Udal administrazioak aholkularitza eta orientazioa eskainiko die herritarrei gehiegizko alkohol kontsumoaren prebentzioaren inguruan. Honela, alkoholaren kontsumoarekin zerikusia duten ohiturak eta jarrerak aldatzeko eta alkoholaren gehiegizko kontsumoak duen kalteaz kontzientziatzeko, Udalak informazio kanpainak sustatuko ditu, eta bide batez, alkohol gehiegi ez edateak dakartzan onurak azpimarratuko ditu.

### Gazte bat atxilotu zuten zapatu iluntzean labanaz erasotzeagatik

Joan zen larunbatean, maiatzaren 29an, Ertzaintzak A.E. inisialdun 22 urteko marokoar gaztea atxilotu zuen, labanaz beste gazte bat erasotu zuelako. Gaueko 23:00ak aldera gertatu zen, Plaza Txikian. Erasotua Osasun Zentrora joan zen besoa zaurituta, eta hasierako sendaketa egin ostean Mendaroko Ospitalera eraman zuten. Ertzaintzak lekuko testigantzak jaso ostean, San Frantzisko kaleko etxebizitza bat arakatu zuen. Odolez beteriko sukaldeko laban bat aurkitu zuten, eta bertan atxilotu zuten marokoar gaztea.

## Organu Emaileen Nazioarteko Eguna izan zen ekainaren 2an

Bihar, larunbata, mahai informatiboak egongo dira Plazan

Ekaineko lehenengo asteazkena Organu Emaileen Nazioarteko Eguna bezala izendatua dago, aurtengoan, beraz, joan zen ekainaren 2an izan zen. ALCER-Gipuzkoa Organu Emaileen Elkarteak "Emailerik gabe ez dago transplanterik" lelopean, informazio eta emaile egiteko kanpaina jarri du martxan.

### Mahai informatiboak

Gipuzkoako Organu Emaileen Elkarteak mahai informatiboak jarriko ditu datorren asteburuan, ekainaren 5ean eta 6an Gipuzkoako 30 herritan. Elgoibarren kasuan, bihar, larunbata, jarriko dute Plaza Handian. Goizez arituko dira herritarrei informazioa ematen, eta nahi duenak emaile egiteko aukera izango du.

ALCER-Gipuzkoa Elkartetik jakinarazi digutenez, Euskal Autonomia Erkidegoan



emaile eta transplanteek punta-puntako maila lortu dute bai kopuruz eta baita kalitatez ere. 2003. urtean, familiartekoen ezetza %6koa izan zen, eta Estatuaren batz bestekoa %19an kokatu zen: "Egoera honek solidaritate maila jaisteko arriskua dauka, izan ere, guztia egina dagoela pentsa baitaiteke, eta transplanteen beharra etengabekoa da".



## Ekainaren 8an epaituko dute Josu Lariz preso elgoibartarra Argentinan

Espainiako Gobernuak Josu Lariz espainiarren esku geratzeko hirugarren eskaera egin du, eta datorren ekainaren 8an epaituko dute lehen instantzian.

1992an eta 2002an, Josu Larizek bi estradizio prozesu jasan zituen Uruguaien preso zegoela, baina Uruguaiako epaileak ez zuen onartu Gobernu espainiarraren eskakizuna. 2002. urteaz geroztik Buenos Airesen (Argentinan) dago preso Josu Lariz, eta Espainiako Gobernuak berriro eskatu du estradizioa. Sozialista Abertzaleak alderdiak Josu Larizen kontrako prozedura gardena izatea eskatu zuen Eusko Legebiltzarrean,



eta auzi berberetatik hirugarren estradizio eskaerari aurre egin beharra errefusa dezala eskatu zuten.

## Ekainaren 7an Kontsumo Busa Elgoibarren

Kontsumitzaileak informatzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak Kontsumo Bus 2004 egitasmoa jarri du martxan. Maiatzaren 19an hasi, eta uztailaren 30era arte, herriz herri ibiliko da autobusa. Elgoibarrera datorren astelehenean, ekainaren 7an iritsiko da. Goizeko 10:30etik eguerdiko 13:30era eta arratsaldeko 16:30etik 20:00etara egongo da autobusa Plaza Handian, kontsumitzaileen zerbitzurako. 15 metroko autobus honek,

gune desberdinak izango ditu, eta besteak beste, ondorengo informazioa eskainiko zaio kontsumitzaileari: Bere eskubideak eta betebeharrak, kontsumoko arbitrajea, kontsumo kredituak eta bidaiariaren eskubideak. Honetaz gain ikasleentzako tailerrak, helduentzako kontsumo mintegiak eta hitzaldiak izango dira.



## Asteon Telebista Aldizkariaren etena



Joan zen urtariletik Barren aldizkariarekin batera banatzen zen Asteon Telebista Aldizkariaren behin behineko etena egitea erabaki du Herriko (Herri Komunikabideen Kooperatibak). Eten honen arrazoi nagusia ekonomikoa izan da. Alde batetik, uste baino publizitate gutxiago sartzen da, eta bestetik, aurreikusitako diru laguntza publikoak ez jasotzeko arriskua dagoelako. Horren ondorioz eta astekariaren egoera ekonomiko erreala argitu artean, ekoizpena halaberrez etetea erabaki dute eta datozen hilabeteetan dirulaguntzen ebazpena ezagutu orduko erabakiko da astekariaren behin betiko etorkizuna.

## Barnetegietan euskara ikasteko dirulaguntzak emango ditu Udalak

Elgoibarko Udalak barnetegiko egonaldiaren gastu osoaren %40a (gehienez 180 euro) ordaintzeko dirulaguntza emango die ikasle eta langabetuei, barnetegiko gastua 600 eurotik beherakoa denean. Gastua 600 eurotik gorakoa den kasuetan, udalaren Euskara Batzordeak, kasuan kasuko azterketa egin ondoren, erabakiko du nolako laguntza eman, baina dirulaguntza ez da behin ere heren bat baino gehiagokoa izango.

Interesatuek Udaleko Euskara Zerbitzuan (Kultur Etxeko 1. pisuan) edota 943 74 43 66 telefono zenbakira goizez deituz lortu ahal izango dute informazio gehiago.

## Enpresa kudeaketa ikastaroak eskainiko ditu Debegesak

Debegesak enpresa kudeaketa profesionalizatu nahi duten pertsona guztiei zuzendutako kurtsoak eskainiko ditu ekainean. Besteak beste, Ekonomia-finantzazko Diagnostika, Denboraren gestio eraginkorra eta Salmenta teknikak izango dira eskainiko diren ikastaroak.

Honekin batera, azpikontratutako eta esportatzaileak diren enpresei bereziki zuzendutako hainbat ikastaro emango dira. Kurtso hauetako batzuk presentziazoak izango dira eta beste batzuk on-line erakoak. Presentziazoak Access I, Access II, Excel I eta Excel II dira, eta Windows, Word I, Excel I, Access I, Power Point eta Internet on-line erara emango direnak.

Informazio gehiago eskuratzeko, interesatuek 943 820110 (Isabel Aldazabal) telefonora deitu dezakete.

**Elgoibarren batz besterik 40 milioitik gora balio dute etxe berriek**

## ZER IRIZTEN DIOZU ELGOIBARREN ETXE BERRIEK DUTEN PREZIOARI?



### **NEREA ODRIA**

**32 urte, tailerreko langilea**

Gehiegizkoa. Ez da kostaldeko herria, eta ez dauka beste munduko ezer. Donostian 40 milioi eskatzea normalagoa da, baina Elgoibar baterako prezio altuegia da.

### **EKAITZ BASKARAN**

**27 urte, fresadorea**

Ez da normala. Kostaldean diru hori eskatzea ere asko iruditzen zait, baina Elgoibarrerako gehiegizkoa da. Dazkagun soldatekin etxe berria erostea ezinezkoa da.



### **PILAR DOSANTOS**

**35 urte, dendaria**

Garestiegia. Herri guztietan daukate antzerako prezioak, eta gehiegizkoa da. Japonen gertatu den bezala, burbuila inmobiliarioak eztanda egin beharko du prezioak jaisteko.

### **MIKEL ZEBERIO**

**26 urte, banatzailea**

Gehiegi da. Euskal Herri guztian berdin dago, eta ohitu egin garen arren, ez da normala. Lan kontua ere ez dago oso ondo, eta gazteontzat arazoa larria da. Etxe bat erostea bizi osorako ekonomikoki lotzea da.



### **ANA FERNANDEZ**

**32 urte, administraria**

Oso garestia. Elgoibarren Zarautz edo Donostiako prezio berberak ordaintzea ez da normala. Etxebizitza oinarritzko beharra da gazteak independizatzeko, eta horrela ezin da.

### **IBAN MORALES**

**17 urte, ikaslea**

Garestia da. Elgoibarrek ez dauka ezer berezirik etxebizitzak hain garestiak izateko. Ez dakit prezioak jaitsiko dian, baina etxiak saltzen dian artian oso zaila izango da.



Tel: 943 74 10 11

- ⊗ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ⊗ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ⊗ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Batzor informatzio eske!*

## Elgoibar BH Institutuan ohorezko matrikulak eta Lanbide Heziketako ohorezko aipamenak banatu dituzte

Aurten ere, Elgoibar BH Institutuan 2003-04 ikasturteko ohorezko matrikulak eta Lanbide Heziketako ohorezko aipamenak banatu dituzte. 9 ikaslek jaso dute ohorezko matrikula: Maitane Iñurrieta, Izaskun Loiola, Amaia Gorrotxategi, Arantzazu Arano, Oier Iriondo, Saioa Eizagirre, Maite Landaburu, Amaia Saenz eta Cristina Lopez.

Lanbide Heziketan, bestalde, 7 ikaslek jaso dute ohorezko aipamena: Maitasun Arebalo (administraritzza), Julen Olanan



(automozioa), Gurutze Artetxe (Erizaintza), Andoni Martin (ibilgailuen elektromekanika), Ainara Tueros



(ingurugiro osasuna), Angel Murillo (karrozeria) eta Jaione Bouzas (merkataritza). Zorionak guztioi!

## Juan Carlos Adot Herri Eskolako zuzendariak Berriztapen Jardunaldietan hartu du parte



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatuta, Hezkuntza Berriztatzeko Gipuzkoako III. Jardunaldiak burutu ziren maiatzaren 26tik 28ra. Gipuzkoako ikastetxe desberdinetako proiektuak aurkeztu ziren, eta Juan Carlos Adot, Elgoibarko Herri Eskolako zuzendariak “Hizkuntzen integrazioa proiektuen bidez” izeneko hitzaldia eskaini zuen. Hizkuntza Trataera Bateratua aurrera eramateko eman

dituzten pausoen berri eman zuen: “Euskararen erabilerarako gaitasunak duen garrantzia eta orohar hizkuntzen garapenak duen eraginaz jabeturik, hizkuntzen irakaskuntzarako didaktika aztertzearen premia ikusi genuen”. Duela 5 urte ekin zioten proiektuari, eta hasieran lan gogorra izan zen arren, hizkuntzaren garrantziari ematen zioten tratamendua birplanteatzeko balio izan diela adierazi zuen.

## Maiatzaren 28an bukatu ziren Musika Eskolako Kurtso Bukaerako kontzertuak

Lau egunetz eskaini dituzte Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako kontzertuak. Lehenengo hirurak Musika Eskolako Auditorioan eskaini zituzten, eta azkena Herriko Antzokian izan zen joan zen ostiralean, maiatzaren 28an. Azken kontzertu hau izan zen jende gehien bildu zuena. Herriko Antzokia jendez gainezka egon zen, eta ikusleak gustura egon ziren. Antolatzaileek esan digutenez, ikasleek maila ona erakutsi dute eta ikasturtean zehar eginiko lanaren emaitza ona izan da.



## Giro bikaina izan zen Herri Eskolak antolatutako Plazaratze Egunean



Herri Eskolak antolatuta Plazaratze Eguna izan zen joan zen larunbatean, maiatzaren 29an Plaza Handian. Atxutxiamaikakoen eskutik, txoko desberdinak izan ziren, eta bertara hurbildu ziren haurrek, aurpegia margotu, marrazkiak, eskulanak eta batidoak egiteko aukera izan zuten. Antolatzaileek esan digutenez, ume mordoia ibili zen jaialdian. Tailerrak egiteko materiala bukatu eta berriz erosi behar izan zutela kontatu digute. Eguraldiak ere izugarri lagundu zuen, eta giro bikaina izan zen Plazaratze Egunean.

## JAIOTAKOAK



**Garazi Saceda Odria,**  
maiatzak 3,  
Juan Manuel eta Nerea



**Aimar Elizburu Vela,**  
maiatzak 4,  
Jesus Mari eta Izaskun



**Maria Davila Borges,**  
maiatzak 19,  
Juan Jose eta Maria Jose



**Unai Arregi Perez,**  
maiatzak 8,  
Mikel eta Igone



**Janela-Haizea Santos Aguilar,**  
maiatzak 9,  
Vicente eta Adina



**Unax Aseginolaza Rozas,**  
maiatzak 12,  
Josu eta Vanessa



**Iraitz Salazar Gabilondo,**  
maiatzak 10,  
Unai eta Argiñe



**Unax Lauzirika Ansola,**  
maiatzak 15,  
Aitor eta Kristina




**Judit Araujo Gomez,**  
maiatzak 24,  
Asier eta Luisa




**Iria Fernandez Gonzalez,**  
maiatzak 19,  
Angel eta Maria Isabel




**Amaia eta Leire Sasiain Uranga,**  
maiatzak 5,  
Juan Cruz eta Ainara




**Ibon Larios Alonso,**  
maiatzak 5,  
Pedro eta Idoia




**Julen Oteo Bastida,**  
maiatzak 16,  
Roberto eta Nekane



**Intza Bereziartua Arenas,**  
maiatzak 15,  
Iñigo eta Monica



**Izaro Iriondo Osoro,**  
maiatzak 9,  
Joseba eta Alicia



**Nora Barrenetxea Arregi,**  
maiatzak 14,  
Pablo eta Oihana

## EZKONTZAK

**Jose Luis Simon eta Veronica Mateos,**  
maiatzak 1

**Esteban Izaguirre eta Itziar Arambarri,**  
maiatzak 7

**Manuel Carcedo eta Carolina Boyer,**  
maiatzak 15

**Ales Arrieta eta Amaia Arrizabalaga,**  
maiatzak 22

## HILDAKOAK

**Senen Asenjo Diez,**  
81 urte, maiatzak 3

**Jose Olazabal Izaguirre,**  
87 urte, maiatzak 10

**Gerardo Castrillejo Iglesias,**  
75 urte, maiatzak 9

**Justa Etxabe Agirre,**  
87 urte, maiatzak 11

**Mari Tere Bastida Zabaleta,**  
67 urte, maiatzak 10

**Manuel Gabilondo Unzueta,**  
80 urte, maiatzak 12

**Tiburcia Alberdi Zubizarreta,**  
86 urte, maiatzak 10

**Amalia Amorebieta,**  
89 urte, maiatzak 25

# ETXE BERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK · TRASLADOAK · KOROAK



**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01



San Frantzisko, 25  
Tel.: 943 74 42 65

# ILYNPE

San Frantzisko, 60 behea  
Tel.: 943 74 01 93



*Ondo pasau TRINITATEAK!*

# TOLETXE



Pedro Muguruza, 8 behea  
Tel.: 943 74 10 12

# UZTARGI

Herriko Enparantza, 8  
Tel.: 943 03 01 50  
MENDARO



Gosariak  
Ogitartekoak  
Pintxoak  
Razioak

# Haundi Hiruge



Bigarren zatiko 14. minutuan iritsi zen Lesakara joan ziren 400 zaletu elgoibartarre igotzeko egin zuen moduan, Joseba Igartua kapitainak sartu zuen garaipenaren garaia. Geroak markagailuan aurretik jartzeko, baina zutoinak batzuetan, eta Beti Gazte taldeak iritsi zen arte. Zoramena nagusitu zen harmailetan eta arbitroak partidua amaitu eta jauzi artean jaso zuten Liga txapeldunaren garaikurra eta halaxe jarraitu zuten urtean ere. Mintxetatik kamioian jaitsi ziren jokalariek eta jarraitzaileekin batera Plaza presidentek, entrenatzaileek eta jokalariek zaletuen babesa eskertu zuten, bai hitzak zuten. Afaldu eta Guass-era joan ziren jarraitzaile fidelenekin igoera ospatzera. Ez saria izan.

# arren mailan!

...k aspalditik irrikatzen eta itxaroten zuten unea. Duela 12 urte Bigarren B mailara joan den domekan Lesakan. Aurrez, aukera mordoan izan zituzten elgoibartako atezainen lan ona besteetan, gaindi ezineko horma izan ziren zorioneko gola eman zuenean tentsio guztiak askatu eta emozio unek bizi izan ziren. Algara jokalaria, entrenatzaile eta jarraitzaileek 21:30ak inguruan Elgoibarrera iritsi zirela Handiraino joan ziren Mausitxa txarangak alaitutako kalejiran. Behin plazan, ...ez eta bai bertotan ere. Ia 23:00ak izan arren, jokalariek ospakizunekin jarraitu dakigu astelehenean inor lanera joan zen, baina urte guztian egindako lanaren ...n zen.



Elgoibarko Eusko Alderdi Jeltzaleak ezagutzera eman nahi dizu, ekainak 13ko  
EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO botoak POSTAZ SOILIK IRITSIKO ZAIZKIZULA.

  
GalEusCa



Europako Herriak

  
EAJ  
PNV

**ELGOIBARKO EAJ - PNV**





### OSASUNA

Anbulatorioa .....	943 03 26 10
Planning-a.....	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak .....	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) .....	943 46 46 22
Gurutze Gorria .....	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea.....	943 03 28 00
Odol Emaileak.....	943 74 39 36

### GARRIOAK

Eusko Trenbideak.....	943 74 04 42
PESA (Eibar).....	902 10 12 10
Taxi geltokia.....	943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua.....	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua .....	943 74 21 58
Mendaroko Udala.....	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua.....	943 74 10 08
Udaletxea .....	943 74 10 50
Udaltzaingoa .....	943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Kiroldegia.....	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .....	943 74 30 88
Liburutegia.....	943 74 35 25
Musika Eskola.....	943 74 21 45
Mintxeta .....	943 74 43 15
Parrokia .....	943 74 08 42
Gaztetxea .....	943 74 35 72
Gazte Informazioa.....	943 74 14 61

## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

4	Etxeberria (Santa Ana kalean)
5	Etxeberria (Errosario kalean)
6	Fernandez
7	Yudego
8	Zabaleta
9	Etxeberria (Errosario kalean)
10	Ibañez
11	Zabaleta

### GAUEZ

Etxeberria
Fernandez
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria
Ibañez
Zabaleta

### FARMAZIAK

<b>ESCALA</b> , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
<b>FERNANDEZ</b> , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
<b>OKINDEGIA</b> <b>6 igandea</b> Doña Mercedes



Tel.: 943 74 21 45

## MUSIKA ESKOLEN HEZKUNTZA SAILAREN PLAN

### BERRIKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZEN DUGU (LOGSE):

*Matrikula zaitetz!! Epea ekainaren 15a arte.*

- \* 5 urtekoekin hasten gara.
- \* Solfeoko ikasketarik ez duten pertsona nagusientzako banakako klaseak.
- \* Hezkuntza ofizialean sartzeko prestakuntza.
- \* Ziklo bakoitza gainditzerakoan diplomak banatzen ditugu.

*Informatika musikala  
Sormena lantzen  
\* Inprobisazioa  
\* Konposizio txikiak  
\* Akonpainamendua  
"Musika Maestro"*

### IKASGAIAK:

*Musika eta Dantza tailerra, instrumentu tailerra, lengoia musikala, teoria eta erritmo espezializatua, harmonia, dantza, Akordeoia, trikitixa, panderoa, biolina, biola, biolontxelo, gitarra, flauta, klarineta, oboea, saxofoia, tronpa, tronboia, bonbardino, tronpeta, fliskornoa, perkusioa, txistua, silbotea, Pianoa.*

### HELDUENTZAKO:

**Instrumentua  
Musika Maestro ( arte tailerra)**

### MUSIKA ESKOLAN DAUDEN EZPEZIALITATE GUZTIENTZAKO.

*Gazteen banda - Txistu taldea - Akordeoi taldea - Korua- Hari taldea - Dantza taldea  
Rock taldea - Dixieland.*

## Artisau Azokatik Disko Festara, egitarau zabala izango dute Trinitate jaiak

Nagusien Tanborrada ordu erdi aurreratu da eta 22:30ean aterako dira

**T**rinitate jaiak gainean ditugu beste behingoz. Aurten ere egitarau anitza antolatu du Udalak eta non aukeratua izango dute festazaleenak. Jadanik ohikoak bihurtu diren Trinitateetako Azoka Bereziak eta Artisau Azokak ez dute hutsik egingo zapatuan eta domekan, hurrenez hurren. Zezenzaleek ere beren txokoa izango dute Xixilion kalean jarriko duten zezen plaza mugikorrean. Bertan, "Errekortadoreen Euskadiko V. Txapelketa" ospatuko da zapatu honetan Luis Mazzantini Txoko Taurinoak antolatuta. Gauean musikaren txanda izango da, baina estilo ezberdinak jorratuz. Tradizionalagoa lehenik Nagusien Tanborradarekin eta berritzaileagoa ondoren Euskadi Gaztearen Disko Festarekin. Aurten lehenago hasiko da tanborrada, 22:30ean eta Joseina Etxeberria, berriz, 24:30ean hasiko da giroa berotzen Plaza Handian.

### Trinitateetako Azoka Berezia

Debemenek Udalaren laguntzaz antolatzen duen Trinitateetako III. Azoka



Berezia zapatu honetan ospatuko da Leku Eder parkean. Bertan, Elgoibarko 25 baserrik parte hartuko dute animaliekin eta beste 12 baserrik produktuekin. Produktuen salmenta 14:00ak arte izango da eta ganadua, berriz, 17:00ak arte egongo da ikusgai Aita Agirre plazan. Honez gain, eguerdiko 12:00etan hasita Elgoibarko baserrietan ekoiztutako kalitatezko produktuen dastatzea egongo da: lumagorriko oilaskoa eta Basatxerri ezaugarria duten txerriak. Txartelak 11:30etik aurrera egongo dira salgai postuan bertan. Salneurria bi eurokoa izango da eta

honen truke 3-4 pintxo jan ahal izango dira. Azkenik, Nafarroa Enparantzan Elgoibarko baserrietan bildutako antzinako lanabesen erakusketa egingo da. Bertan, lurra eta egurra lantzeko, garraiatzeko eta bestelako tresnak ikusteko aukera izango da, besteak beste, burdiñarriak, boshortzak, alperria, hexixa, laixak, nabarra, burdiak, marra, arpana, trontza, buztarriak, etab.

### Artisautza Feria

Domekan, hilaren 6an, Trinitateetako IX. Artisautza Feriari emango zaio hasiera goizeko 9:00etan Leku Ederren. 25 artisautza jarduera ezberdin ikusi eta miretsi ahal izango ditugu. Leku guztietatik etorriko dira artisauak, baina elgoibartarrak ere izango dira tartean: Jose Menbrilleraren eskulanak, Karkizano dendaren "frivolite", ehoziriak eta kakorrazt-lanak, Antxon Fresnedoren itsas korapiloak, Martina Alzibarren eta M<sup>a</sup> Carmen Elorzaren kakorrazt-lanak, Garbiñe Osaren lore lehorrak eta Egur tailerreko kideen margo eta esmalte lanak.

## Ainhoa Mendibilek Urruzuno Literatura Lehiaketara irabazi du

Poesia atalean hartu du parte Ainhoa Mendibilek Urruzuno Literatura Lehiaketan, eta lehenengo saria lortu du. Lekeitioko amona baten istorioa kontatzen duten 9 bertso aurkeztu zituen Ainhoak lehiaketara: "Itsaso giroko istorioa kontatzen da. Amona batek bere familiako gizonak itsasoan galdu ditu, eta heriotza horien ondorioz, familiako emakumeak tristuraz hil dira. Beraz, amonak ez du ulertzen k o s t a l d e k o bizilagunek zergatik maite duten hainbeste itsasoa". Ainhoak esan digunez, sentimendu handiko bertsoak ziren. Zorionak!



## Mikel Olaizolak Euskal Herriko Bat Bateko Bertso Lehiaketako finalean hartuko du parte

Ikastolako Errazu Bertso Eskolako hiru lagunek Gipuzkoako Bat Bateko Bertso Lehiaketako finalean hartu zuten parte Zarautzen, joan zen maiatzaren 29an. Mikel Arrieta, Mikel Olaizola eta Danel Mendibilek osatutako hirukotea oso ondo aritu zen, eta Mikel Olaizola Euskal Herriko Bat Bateko Bertso Lehiaketako finalean abesteko aukeratu dute. Txapelketa datorren ekainaren 19an izango da Mungian.

Errazu Bertso Eskola duela bi urte sortu zen. Ainhoa Mendibil eta Erlantz Allur dira irakasleak, eta lan ona egiten ari direla esan daiteke. Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Paper



Lehiaketan Elgoibarko 75 lagunek hartu dute parte. Bat batekoan, berriz, goian aipatutako hirukotea aritu da, eta esan digutenez, Mikel Olaizolak Euskal Herriko finala irabazteko aukera handiak dauzka.



## JOSE LUIS INSAUSTI

C.D. ELGOIBAR-KO PRESIDENTEA

# “Taldeak aldagelan funtzionatzen badu zelaian ere berea emango du”

### ■ Nola bizi izan zenuen Lesakako garaipena?

Segituan antzeman zen Elgoibar nagusi zela, baina aukerak behin eta berriz galtzen zirela ikusteak urduritasuna areagotu zuen. Atsedenaldira inork golik sartu gabe iritsi ginen, baina aldageletan animuak goian zeuden eta jokalariaik baikor.

### ■ Noiz pentsatu zenuen “hau egina zagok”?

Igartuaren golak asko lagundu zuen, baina TeleDonostirako elkarrizketatua izaten ari nintzela, Beriori berdinketaren gola sartu ziotela esan zidatenean, lasaitu nintzen amaierarako 8 minuturen faltan. Gero 7 minutuz luzatu zuen epaileak partidua!

### ■ Zer esanahi dauka zuretzat presidente kargua hartu eta lehen urtean Haundik mailaz igotzea lortzeak?

Izugarrizko poza, batez ere jakinik beste inor aurkezten ez zela-eta guraso talde batek hartu genuela C.D. Elgoibarren zuzendaritza. Honek jarraitzeko indarra eta kemena ematen du, baina ikusi egin beharko da zer gertatzen den ekainaren 22an ospatuko den batzar orokorrean. Jarraitzea da gure asmoa, baina ikusi egin behar beste inor aurkezten den.

### ■ Nola bizi du presidente batek horrelako gertakari bat?

Bizkarrean zerbait edukiko banu bezala sentitzen nintzen partiduan, nerbioak hor pilatuko balira moduan. Gainera, Beti

Gazteko presidentearen ondoan egotean ezin nuen pentsatzen nuen guztia esan.

### ■ Zer daukazu esateko Lesakara joan ziren 400 zaletuei?

Harrigarria izan zela, Mintxetara gehienez 300 pertsona joan izan baitira. Jendeak futbola bizi duela adierazten du horrek, baina Mintxetara igotzea kosta egiten zaiola, dela Realaren partiduetara joatea nahiago duelako, dela pilota partiduegatik edo beste zerbaitegatik.

## “Jarraitzeko indarra eta kemena eman digu Haundiren arrakastak”

### ■ Zer gertatu zen Real Unionen aurkako partiduan? Nola bizi izan zenuen?

Kolpe gogorra izan zen eta pott eginda laga gintuen. Are gehiago dena prest geneukanean garaipenerako. Lehen zatian ondo aritu ziren mutilak, baina bigarren goan uzurtuta aritu ziren, ezinean, eta zalegoa bera ere halaxe laga zuten, zeharo sikatuta.

### ■ Zer azpimarratuko zenuke aurtengo Haundiren taldetik?

Talde giro oso ona lortu izana izan da Haundiren lorpenik eta arrakastarik onena. Funtsezkoa da hori taldeko kirol batean, hau da, kideak elkarrekin ondo konpontzea

eta haserre txikiak gaintzen jakitea. Garagartza eta Loiolak hori lortu dutela uste dut. Taldeak aldagelan funtzionatzen badu zelaian ere berea emango du eta gauzak bere kasa aterako dira.

### ■ Haundiaz gain C.D. Elgoibarko talde guztientzat denboraldi borobila izan da aurtengoa.

Bai, halaxe da, kirol arloan denboraldi ezin hobea izan da. Haundia eta kadeteak igo egin dira eta jubenilak ere igoko diren esperantza daukat, zapatu honetan izango dute aukera Mintxetan. Erregionalak ere denboraldi ona egin du, infantilek bezalatsu. Nesken talde batek ere Kopako finalerdiak jokatu zituen.

### ■ Zuzendaritzak lan gehiago izango al du Haundi 3. Mailan egonik?

Lana antzerakoa izango dela uste dut. Finantziario arloan egin behar izaten da lanik handiena, aurrekontu handiak mugitzen baitira. Babesleak lortu, errifak saldu eta ahalik eta bazkide gehien lortzen saiatu beharko dugu. Hori bai, jarraitzaileen babes eta laguntza gehiago beharko dugu agian, bazkide kopuruak behera egin baitu.

### ■ Nori eskaini nahi dizkiozu lorpen hauek?

Zalegoari zalantzarik gabe. Eskerrak eman nahi dizkiet eman diguten babesagatik eta aurrerantzean ere berdin jarrai dezatela eskatuko nieke, dagoena dagoela, elgoibartarren babesik gabe taldeak ez bailuke jarraituko.

## Jubenilek asteburu honetan jokatuko dute Euskal Ligara igotzeko baliagarria den Hiruko Torneoa

Bizkaia eta Arabako txapelkunordeen aurka jokatuko dute Mintxetan

**C**.D. Elgoibarko jubenil taldeak datorren urtean Euskal Ligan jokatzeko aukera paregabea izango du zapatu honetan, hilaren 5ean, Mintxetan. Liga Txapelketa irabazteko zorian izan dira aurten Xabi Alonsok entrenatutako mutilak, baina Eibarko futbol taldeak jantzi zuen txapela eta honek berarekin zekarren saria, datorren urtean Euskal Ligan jokatzeko, alegia. Elgoibartarrek azken jardunaldira arte borrokatu zuten, baina puntu bakarreko aldeaz nagusitu ziren eibartarrak. Zorionez, bigarren saiakera eta aukera izango dute



*Denboraldi bikaina egiten ari dira jubenilak.*

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako liga txapelketatan txapelkunorde izan diren hiru taldeek. Zozketa egin ostean,

Elgoibarri egokitu zaio hiruko torneoa antolatzea. Lehen partidua Arabako Pilar Marianista taldeak eta Bizkaiko Peña Athletic Santurtzik jokatuko dute 16:30ean Mintxetan. Aurreko partiduko galtzailea izango dute aurrez aurre elgoibartarrek 17:30etik aurrera. Azkenik, 18.30ean lehen partiduko irabazleak eta C.D. Elgoibartarrek neurtuko dituzte indarrak. Torneotik garaile ateratzea

lorpen handia izango litzateke jubenilentzako, Euskal Ligan Euskal Herriko talde indartsuenek jokatzeko baitute.

### Mintxetako aire libreko igerilekuak ekainaren 12an irekiko dira

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak adierazi duenez, ekainaren 12an, zapatuan, irekiko dira Mintxetako aire libreko igerilekuak.

Dagoeneko hasiak dira bi igerilekuak garbitzen eta urez betetzen.

Aurtengo denboraldia ekainaren 12an hasi eta irailaren 12ra arte luzatuko du. Ordutegia, berriz, pasa den urteko berbera izango da, hau da, astelehenetik igandera, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte. Dena dela, eguraldiak laguntzen duen egunetan 21:00ak arte irekitzeko asmoa ere badauka Udal Kirol Patronatuak. Patronatuko kirol txartela dutenek sarrera dohain izango dute eta ez dutenek denboraldiko txartela ateratzeko aukera daukate.

## Kadete eta jubenil mailako neskek Gipuzkoako Kopako txapelkun

**S**anlo Elgoibar Eskubaloi taldeko Kadete eta jubenil mailako neskek Gipuzkoan talderik onenak direla frogatu berri dute bakoitzak bere mailan. Bi talde hauek eta Sanlo E.K.T.ko gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopan parte hartu dute azken asteetan. Cometel Elgoibar jubenil mailako nesken taldeak partida guztiak irabazi ostean lortu du

txapelketa. Finalean Euskalduna taberna talde zarautzitarra izan zuten aurrez aurre eta 28 eta 18 irabazi zuten elgoibartarrek. Pagoaga Elgoibar kadete mailako taldeak ere kopako partida guztiak irabazi ditu eta finala ere 18 eta 14 irabazi zuen Bera-Bera taldearen aurka Eibarren jokatuako partidaren. Zorionak hortaz bi taldeei!



*Cometel Elgoibar (ezkerrean) eta Pagoaga Elgoibar taldeak.*

## 200 lagunek hartu zuten parte I. Spinning Maratoian

Arrakasta itzela izan du Udal Kirol Patronatuak antolatutako I. Spinning Maratoiak. Kirol modalitate berrietakoa izan arren, harrera oso ona izan du spinning-ak elgoibartarren artean. Joan zen zapatuan esaterako, 50etik gora izan ziren spinning maratoian parte hartu zuten herritarrak. Gainontzeko 150 lagunak Euskal Herriko hainbat herritatik etorritakoak ziren, eta tartean Madrildik ailegatutako bi gazteren kasu berezia. Ez da ohikoa herri txiki batek halako jaialdi erraldoia antolatzea, Bartzelonan eta Madrilen ohikoagoak dira, baina Euskal Herrian antolatu den estreinakoa izatearen ohorea du Elgoibarkoak. Bost ordu eta erdiko iraupena izan zuen saioak eta asko izan ziren etengabe jardun zirenak. Parte hartzaileek 1.200 litro ur eta edari isotoniko edan izana, kirol honen



gogortasunaren adierazle garbia da, gorputzak likido asko galtzen baitu bizikleta finkoaren gainean. Bestalde, zuzenean aritu zen perkusio taldeak jai giroa sortzen eta erritmoa markatzen lagundu zien kirolariei. Kiroldegira gerturatu ziren ikusleak ere ikuskizun aparta ikusi zuten, Kiroldegiko kantxan 150 bizikleta finko ikustearen irudia halakoxea baitzen.

## Ikastolako 6. mailako areto futbol taldea Gipuzkoako txapeldun

Joan zen zapatuan, hilaren 29an, Elgoibar Ikastolako 6. mailako mutilek Gipuzkoako Eskolarteko finala jokatu zuten Altzako

kiroldegian. Tolosako Laskorain ikastolaren aurka jokatu zuten finala eta 5 eta 0 izan zen azken emaitza elgoibartarren alde.



*Argazkian, goiko ilaran ezkerretik hasita: Pedro Alvarez (entrenatzailea), Unai Zubiaurre, Aitor Goikoetxea, Unai Usobiaga, Ibon larrea, Asier Izagirre, Iñigo Plazaola, Juanjo Carrara (entrenatzailea). Beheko ilaran, ezkerretik hasita: Ander Aranbarri, Ion Ander Alvarez, Asier Carrara, Joseba Gabilondo, Jon Casado. Mikel Rodriguez falta da argazkian.*

## Elgoibarko Igeriketa taldekoek Eibarko Txapelketan parte hartu zuten

Elgoibarko Igeriketa Taldeko neskek Eibarko Igeriketa Txapelketan izan ziren maiatza amaieran. 93. eta 94. urteetan jaiotako neskek aritu ziren lehian.

50 metro tximetela estiloen Ainhoa Agirre izan zen igerilari elgoibartarrik bizkorrena (49'98''). Eneritz Azpitarte, Alazne Martinez eta Alba Zangitu sailkatu ziren Ainhoaren atzetik. 100 metro estilotako frogan, berriz, Alba Zangitu izan zen bizkorrena (1.47'37'').

Eneritz Azpitarte, Ainhoa Agirre eta Alazne Martinezen aurretik sailkatuz. Benjamin kategorian Maria Barrenetxeak egin zuen igeri 100 metro libretako frogan 1.48'02'' denbora eginez.



## EMAITZAK

### Futbola

Beti Gazte **0** – Haundi **1** (Pref.)

### Esku pilota

Euskadiko Udaberri Saria

Lagunak **8** . Huarte **22** (Kad.)

Udaberri Saria

Zumaia **18** – Lagunak **13** (Inf.)

Debarroko Txapelketa

Arrasate **14** – Lagunak **22** (Jub.)

Lagunak **22** – Aloña Mendi **2** (Jub.)

Lagunak Txapelketa

I. Txurruka **18** – M. Arrieta **11** (Benj.)

I. Amesti **18** – A. Gabilondo **9** (Benj.)

E. Guemez **18** – J. Ibarluzea **13** (Benj.)

M. Gurrutxaga **18** – A. Murua **10** (Benj.)

I. Arrieta **18** – A. Lizarralde **7** (Inf.)

A. Aretxabaleta **18** – E. Salegi **2** (Inf.)

### Areto Futbola

Santurtzi **2** – Kenci Elg. **8** (Nazional B)

Adarra **2** – Lanbroa **8** (1. maila)

### Eskubalola

Aloña Mendi **19** – Pagoaga Elg. **25** (Kad. nesk.)

Zarautz **18** – Cometel Elg. **28** (Jub. nesk.)

Egialde Auto **31** – ANTT Softlan **27** (Sen. mut.)

Tecnifuelle Elg. **25** – Arrate **30** (Sen. mut.)

Pagoaga Elg. **18** – Bera-Bera **14** (Kad. nesk.)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Zapata, **5**

**16:30** Pilar Marianista – Peña Athletic Santurtzi (Jub.)

**17:30** Aurreko partiduko gaitzailea – C.D.

Elgoibar (Jub.)

**18:30** C.D. Elgoibar – Lehen partiduko irabazlea (Jub.)



Oñatiko enpresak **arotza** behar du. **Erref. 162004003957**

Gipuzkoako enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 162004003817**

Zarauzko enpresak **erakusle informatzilea** behar du. **Erref. 162004003965**

Gipuzkoako enpresak **igeltseroa** behar du. **Erref. 162004003959**

Gipuzkoako enpresak **kaldereroa** behar du. **Erref. 162004002829**

Gipuzkoako enpresak **bulego zuzendaria** behar du. **Erref. 162004002989**

Gipuzkoako enpresak **garbitzaila** behar du. **Erref. 162004003844**

Arrasateko enpresak **inkestatzaila**

behar du. **Erref. 162004003704**

Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004003609**

Gipuzkoako enpresak **kamiio gidaria** behar du. **Erref. 162004003832**

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaila hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

◆ Emakumea orduka adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 662 09 46 24**

◆ Neska gazte euskalduna udan lan egiteko prest. **☎ 669 682 990**

◆ Emakumea garbiketa lanetarako prest. Elkartek, tabernak... **☎ 639 88 20 04**

◆ Administrataria, astean zehar, arratsaldean orduka ofizinan lan egiteko prest. Ez dago kontratu beharrik. **☎ 646 39 92 52**

◆ Neska astean zehar, arratsaldean lanerako prest. **☎ 646 39 92 52**

### ESKAINTZA

◆ Udan umeak zaintzeko pertsona behar da. **☎ 676 15 46 00**

◆ Asteburuetarako kamareroa behar da. Jatetxeko barrarako. **☎ 635 75 16 42 (15:00-20:00 artean deitu)**

◆ Neska edo mutil euskalduna behar da Mintxetako harreran lan egiteko. Abuztua eta iraila. Kurrukulumak 32 postakutxatilara bidali.

◆ Emakumea behar da bi ume zaintzeko. Astean lau egun. **☎ 943 74 23 08**

◆ Kamareroa behar da asteburuetan lan egiteko. Esperientziarekin. **☎ 652 77 82 10/652 77 82 60**

◆ Tabernan lan egiteko neska edo mutila behar da. Astegunetan edo asteburuetan lan egiteko. Txandaka. **☎ 943 74 28 97**

◆ Tabernarako kamarera gaztea behar da. **☎ 943 74 37 71**

## Garajeak

◆ Garajea alokatzen da Urbitarten. **☎ 943 74 06 88**

◆ Garajea alokatzen da Basarte kalean. **☎ 943 20 38 39 (gauetz)**

◆ Garajea salgai Anayak-eko lehen solairuan. Morkaiko kalean. **☎ 943742506**

## Lokalak

◆ Sigmako indutrigunean lokala salgai. 90m<sup>2</sup>. Toki onean. **☎ 609 165 448**

◆ Funtzionamenduan dagoen Cyberdenda traspasatzen da Elgoibar erdialdean. **☎ 645 18 63 09**

## Bestelakoak

◆ Radiant markako errojua galdu dut Madala inguruan maiatza hasieran. Urre eta zuri kolorekoa. **☎ 943 53 16 79 (gauetz)**

## Etxebizitzak

◆ Mendaro: Herriko Enparantza. 92m<sup>2</sup>, 3 logela, jangela, sukaldea, 2 bainugela, oso argitsua, kamarotea, garajea, altzariekin, igogailua. Sartzeko moduan. 39.600.000 Pts. /238.000,79 euro. **☎ 943 82 05 10**

◆ Soraluzen etxea salgai. Berritua, altzariekin. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Alkoba bat, txokoa, entreplanta eta garaje. Dena barrutik komunikatuta. 140m<sup>2</sup>. **☎ 656 780 748**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**

◆ Pisu konpartitzeko pertsona behar da. **☎ 645 70 14 93**

◆ Pisu salgai Mendaron. Guztiz eraberritua, bizitzera sartzeko moduan. **☎ 609 96 53 95/650 12 96 05**

◆ Etxea salgai Ubitarte kalean. Eguzkitsua, berritua, altzariekin. **☎ 652 71 87 19**

◆ Pisu salgai Arregitorren. Berritua, 3 logela, egongela, bi komun, ganbarra eta garajea. Eguzkitsua. **☎ 679830438**

◆ Apartamentua alokagai Saloun. Handartzan. Konpletua, aire egokituva, igerilekua eta garajea. **☎ 943 81 42 38**

◆ Apartamentua alokatzen da Conilen (Cadiz). Berria. **☎ 680 44 26 68**

◆ Neska ezkongabeak pisua hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. **☎ 943 74 26 62/676 31 65 76 (18:00etatik aurrera)**

◆ Pisu alokatzen da Donostian udaran (Antiguan). 2 logela, dena kanpora begira. Ondarretatik 5 minutura. **☎ 943 31 47 91**

◆ Pisu salgai San Frantzisko kalean. 3 logela, sukaldea, jangela, egongela, komuna. Berritua eta altzariekin. Prezio interesantea. **☎ 661 42 60 77**

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

◆ Seat Toledo Sport 2.0 autoa salgai. 115 cv. gasolina. 160.000 km. SS-AN. Oso egoera onean. 1800 euro. **☎ 617 71 91 21**

◆ Citroen ZX autoa salgai. 2.0, 16v. **☎ 659 71 57 22 (losu)**

◆ Egongelarako egurrezko altzari modernoa salgai. Abedul eta gerezindokoa. Prezio eta egoera onean. **☎ 636 355 631 Mirtia**

◆ Hyundai Poni autoa salgai. SS-AT. Bost ate. 30.000 km. **☎ 635 20 88 87**

◆ Kotzerako irratit telebista salgai (Alpine). CD kargatzailarekin (6 CD eta MP3) eta telebista sintonizatzailea. 1.300 euro. **☎ 636 607 187**

◆ Renault 5 autoa salgai. 750 euro. **☎ 699 81 25 66**

◆ 2. eskuko desbrozadora erosiko nuke. **☎ 639 84 10 01**

◆ Mountain Bike-a erosiko nuke. Bigarren eskukoa, egoera onean. **☎ 943 74 45 16**

◆ Pertsiar katakumeak salgai. Prezio onean. **☎ 680 442 668**

◆ Autokarabana salgai. Fiat Talento 1,9. 163.000km, diesela. Sukaldea, berogailua, hozkailua, bizikletentzako baka... **☎ 943 60 44 07/686 30 15 59**

◆ Citroen Yumpy furgoneta salgai. 1.9 TD, 97koa. 120.000km. Egoera onean. Sartzeko premia. 6.600 euro, negoziagarriak. **☎ 943 74 34 89**

◆ Serieko lllantak salgai. Neumatikoekin. Peugeot 206 GTI autoarenak. Hiru hila-betez erabiliak. **☎ 696 89 60 88**

◆ Josteko makina erosiko nuke. Ahal bada Sigma edo Alfa markakoa. Modelo zaharra, ez automatikoa. **☎ 943 74 14 69 (iluntzean deitu)**

## Partikularrak

◆ Ingeleseko partikularrak ematen dituztaz. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. **☎ 943 74 31 67/653 72 28 11**

◆ Ingeles partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Esperientzia daukat. **☎ 617 35 98 33 (Maria Jesus)**

◆ Uztailaren LH eta DBHko lengoia eta matematika kalseak emango nituzke goizez. **☎ 943 74 42 06**

## SAN PEDROKO ETXEAK

### SALGAI

SUKALDE JANTOKIA  
HIRU LOGELA  
KOMUNA ( BERRITUA)  
KANPOALDERA

**EGOERA ONEAN**  
TEL.: 943 74 44 67  
**17 MILIOI**

## Agurrak



♦ Zorionak **aitatxo Raul**, maiztaren 26an urteak egin zenituelako. Emaztearen partez.



♦ Zorionak **Asier**, bihar urtebete egingo duzulako. Familiako-en, eta bereziki, lehengusu guztien partez.



♦ Zorionak **Andoni Riañori**, ekainaren 3an, 10 urte bete zituelako. Guztion, eta bereziki, Josu, Esther eta Mariaren partez.



♦ Zorionak **Ander**, gaur 12 urte bete dituzulako. Familiako-en eta anaiaren partez.



♦ Zorionak **Iker**, ekainaren 5ean, urtebete egingo duzulako. Aita, ama eta Janirenen partez.



♦ Zorionak **Ainara**, hilaren 30ean, zure urtebetetze eguna izan zelako. Zure lagun Araitz eta Garaziren partez.



♦ Zorionak **begi urdin!** Etxeko guztien eta bereziki, anaiaren partez.



♦ Zorionak **prexioxi**: ondo-ondo pasatu zure egunean, muxu asko eta bi belarri tirakada ikastolako laguntxoaren partetik.



♦ Zorionak **Maialen**, igandean 6 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta anaiaren partez.



♦ Zorionak **June**, gaur, hilak 4, bi urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **losu** eta **Leireri**, ekainaren 9an, lau urte beteko dituzulako. Muxu handi bat Mikel eta Julenen partez.



♦ Kaixo **potxola!** Zure lehen urtebetetzean oso ondo igaro genuen. Berandu izanda ere, zorionak ikastolako laguntxoaren partez.



♦ Zorionak **Angel** eta **Albari** zuen bosgarren eta bigarren urtebetetzean. Gurasoen partez.

## IKASTAROAK

### Adierazpena eta sormena

EDE Fundazioak XVI. Adierazpen eta Sormenari buruzko ikastaroak antolatu ditu Bilbon uztailek 5-9 bitarteko astean. Goizeko edo arratsaldeko ikastaroak, guztira 13 ezberdin, euren artean: kabaret tailerra, kale antzerkiko teknikak eta elementuak, adierazpena eta psikomotritzitatea, adierazpen mugimendua, etab. Izena emateko epea: ekainak 30

### Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) aurtengo uztaile eta abuztuaren Iruñea eta Biarritzaren emango diren gai ezberdinei buruzko ikastaroak eskaintzen ditu, guztiak ere euskaraz, euskaraz ikasteko prest dagoen edozeini zuzenduta. Egitarauak ezagutu eta matrikula egiteko: [www.ueu.org](http://www.ueu.org). Izena emateko epea: plazak agortu arte

## JARDUERAK

### Abentura kanpaldia

Donostiako Kabia Elkarteak 11-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako abentura kanpaldia antolatu du Burgosen. Abentura kanpaldia "El brezal" kanpinean egingo da uztailearen 19tik 25era. Epea: ekainak 10

### Eskola Publikoaren Jaia

Igande honetan, ekainak 6, Euskal Eskola Publikoaren XIII. Jaia ospatuko da Bilboko Zorrotzaurren. "Mugak gaindituz geuria indartu" da aurtengo ediziorako aukeratutako leloa.

## LEHIAKETAK

### Ipuinak

Espainiako Trenbideen fundazioak Ipuingintzako Camilo Jose Cela Saria 2004 antolatu du. Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira, Espainiako Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan idatziak, gehienezko 10 orriko luzerakoak eta nolabaiteko lotura izan beharko dute trenbidearekin. Bi sari: 15.000 euro eta 5.000 euro. Epea: ekainak 18

### Euskarako itzulpenak

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) Literatura unibertsala euskaratzeko lehiaketa 2004 antolatu du. Parte hartzaile bakoitzak aukeratutako obraren 10 orrialdeko lagina aurkeztu beharko du. Informazio gehiagorako: [www.eizie.org](http://www.eizie.org). Epea: ekainak 24

### Natura babesteko proiektuak

Bartzelonako Natura Selection-ek natura babesteko edo giza laguntzarako proiektuen IX. lehiaketa antolatu du. Argibide guztiak [www.naturaselection.com](http://www.naturaselection.com) webgunean. Epea: uztailek 15

## TRINITATE JAIK 2004

### EKAINAK 5, ZAPATUA

**10:00** Trinitateetako III. Azoka Berezia (Elgoibar-ko baserrietako produktuak) Leku Eder parkean  
Elgoibarko baserrietan hasitako abereak  
Plaza Txikian

**16:00** XX. Xake Txapelketa Leku Ederren

**17:00** Musika Eskolako Ikasleen Jaialdia  
Udal Txistulari Taldea eta Haritz E.D.T.rekin  
Plaza Handian

**18:30** "Errekortadoreen Euskadiko V. Txapelketa  
Xixilion kalean

**22:30** Nagusien danborrada  
Udal Musika Bandarek lagunduta

**24:30** Euskadi gaztearen Disko Festa  
Joseina Etxeberriarekin  
Plaza Handian

### EKAINAK 6, DOMEKIA

"TRINITATE EGUNA"

**9:00** Diana Udal Txistulari taldearekin

**10:30** "IX. Artisau Azoka" Leku Eder parkean

**11:00** Meza nagusia  
Parrokiako Abesbatzaren laguntzaz  
San Bartolome parrokian

**12:00** Haurren tanborrada ikusgarria  
Musika Eskolako bandaren laguntzaz  
Udal Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta

**17:30** Erraldoi eta Buruhaundien kalejira  
Elgoibarko dultzaineroen laguntzaz

**18:00** Zezentxoak eta poniak  
Xixilion kalean

**19:30** Gelatxo Orkestraren dantzaldia  
Plaza Handian

## 4 BARIKAKUA

**19:00** HERRI ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

**20:00** ITXAROPENA

ABESBATZAREN KONTZERTUA

Plaza Handian



## 6 DOMEKIA

**19:00** GELATXO ORKESTRAREN

DANTZALDIA

Plaza Handian

## 11 BARIKAKUA

**22:00** BIDEO-FORUM-A

Filma: "Las Horas"

Kultur Etxean

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



Lanegunetan goizeko  
11etan irekitzen dugu  
eta jaiegunetan 13etan

Menu ezberdinen artean  
hau dasta dezakezu

- \* Entsalada
- \* Txuleta ( 500 gr.)
- \* Postrea
- \* Ogia
- \* Ardoa

Dena 17 €gatik

**Betiko karta oparoz  
gain (arraia,  
haragia...) orain  
UDAKO MENU  
BEREZIEKIN  
hasi gara**

Basarte Auzoa, 4 (Mintxeta inguruan)  
Tel./faxa: 943 74 34 26

**MERINO-YESTE**  
ENPRESA IRUDIA

argazkigintza digitala  
Tel.: 617359833  
diseinu grafikoa  
eta diseinu editoriala  
web diseinua  
merinoyeste@yahoo.es

**URKIDI** AHOULKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91

ASEGURUAK



## IRTEERAK

### Aquarium-era irteera

LH 1. 2. eta 3. mailetako ikasleentzat Donostiako Aquarium-a bisitatzeko irteera antolatu du Atxutxiamaika Begirale Taldeak. Datorren ekainaren 19an, zapatuan, izango da eta izena emateko epea ekainaren 16an bukatuko da. Irteeraren prezioa 10 eurokoa da. Norberak eraman beharko du bazkaria eta merienda.

### Lekunberriko Abentura Parkera

GAZ-T Aisialdi Taldekoek Lekunberriko Abentura Parkera irteera antolatu dute DBH 1,2,3 eta 4. mailakoentzat. Irteera ekainaren 22an izango da, eta izena emateko azken eguna, ekainaren 16a izango da. 10 euro balio ditu, eta plazak mugatuak direnez, matrikulazio ordena errespetatuko da.

## OSPAKIZUNAK

### 49ko kintoak

1949an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 19an, Sigmako jatetxean. Egunean bertan 13:00etan elkartuko dira argazkia ateratzeko Udaletxe aurrean. Joan joan nahi dutenek La Caixako kontu zenbaki honetan: 21004168772100091490 sartu beharko dituzte 55 euro ekainaren 10a baino lehen.

## ERROMESALDIAK

### Erromesaldia Arantzazura

Ekainaren 13an, domekan, Arantzazura erromesaldia egingo da. Bertan parte hartu ahal izateko autobusa jarriko dute Elgoibartik. Goizeko 9:30ean aterako da berau Sigmako errotondatik eta 10:30erako iritsiko da Arantzazura penitentzi ospakizunetan parte hartzeko garaiz. 12:00etan meza nagusia ospatuko da eta 14:00etan bazkaria ostatuan. Errosarioa errezatu ostean, 17:30ean izango da etxera itzultzeko ordua. Autobusaren eta bazkariaren txartelak Muruamendiaraz gozotegian eskura daitezke 25 euroren trukean. Bezpera arte izango da txartelak erosteko aukera.

zine  
KARTELDEGIA

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "Scary Movie 3"

4, barixakua: 22:15

5, zapatua: 19:30-22:15

6, domekia: 19:30-22:15

7, astelehena: 22:15

#### "La Pasión de Cristo"

11, barixakua: 22:15

### EIBAR, Unzaga

#### "El día de mañana"

4, barixakua: 19:30-22:15

5, zapatua: 17:00-19:30-22:30

6, domekia: 17:00-19:30-22:30

7, astelehena: 19:30-22:15

8, martitzena: 19:30-22:15

9, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, Rialto

#### "Hector"

4, barixakua: 19:30-22:15

5, zapatua: 17:00-19:30-22:30

6, domekia: 17:00-19:30-22:30

7, astelehena: 19:30-22:15

8, martitzena: 19:30-22:15

9, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENez ez du gerta litezkeen emandien aldaketan erantzukizunik.



## "Scary Movie 3"

Zuzendaria: David Zucker

Antzezleak: Anna Faris, Leslie Nielsen, Denise Richards.

Cindy Campbell kazetariak albiste garrantzitsu bat emateko aukera izan nahi du, eta laster aurkituko ditu gizateriaren biziraupenerako arriskutsuak izan daitezkeen izaki bitxiak: extralurtar erasokorrak, bideo zinta hiltzaileak, begirada maltzurroko haurrak, arraza zuriko rap abeslari egoskorak, etab. Munduak bizi duen egoera ez da nolana hikoia eta Cindyk bakar-bakarrik egin beharko die aurre arrisku guztiei.

ZINEA



# A

ste honetako erretratu zaharra Teresa Perezek laga digu. 1964. urteko argazkia da. Aita Agirre Ikastetxeko nesken gela bat da. Aurten 50 urte beteko dituzte argazkian ageri diren neskatila hauek, eta bihar daukate kintoen bazkaria. Gogoratu ditzagun zeintzuk diren.

1. Mari Paz Alvarez, 2. Pilar Andrade, 3. Maria Luisa Arnaiz, 4. Merche Ros, 5. Mari Carmen Garcia, 6. Marivi Miquel, 7. Isabel Azkarreta, 8. Mari Karmen Azpiazu, 9. Inmakulada Bilbao, 10. Mari Tere Garai, 11. Maria Angeles Nogales, 12. Mari Fran Juaristi, 13. Ana Uncilla, 14. Gloria Barrutia, 15. Itziar Etxabe, 16. Arrate Azeleta, 17. Pilar Etxeberria, 18. Corona Fernandez, 19. Juanita Fernandez, 20. Merche Mauleon, 21. Juanita Yague, 22. Dorita Iranzo, 23. Clementina Estevez, Señorita Pakita Acha (irakaslea), 24. Mari Fran Unzueta, 25. Mari Tere Zubiaurre, 26. Teresa Perez, 27. Mari Karmen Alberdi, 28. Ana Mari Bilbao, 29. Pilar de La Lama.



## I. URTEURRENA

2003ko ekainaren 3an, 78 urte zituela hil zen  
**MANUEL RIAÑO ZUBIZARRETA**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da  
larunbatean, hilak 5, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



# BASKO RENT


Tel.: 902 103 287

GARBIKETA  
MANTENIMENDUA  
AUTOEN ALOKAIKUA

Sigmako Industrialdea - 7 eta 8 pabillioiak

**MANTENDU EZAZU  
ZURE AUTOA  
GARBI ETA PREST!**

**KONPONKETA TAILERRA**



MANTENIMENDU OROKORRA  
OLIO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA  
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

**GARBIKETA AUTOMATIKO  
PUBIKOA**



**ESKAINZA BEREZIA:**  
PNEUMATIKOAK 4 X 3  
3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU



**Firestone**

**GOOD YEAR**

## ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK  
APARTAMENDUAK  
DUPLEXAK  
LORATEGIDUN DUPLEXAK  
GARAJEAK  
MERKATARITZA LOKALAK



**MAALA  
BIZIGUNEA**



Salmenta bulegoa:  
Bernardo Ezenarro, 2

**943 740 858**

Eraikitzailea:



Sustatzailea:

**URTAGO  
PROMOZIOAK, A.I.E.**

# Trinitate jaiak 2004



*Ondo  
pasa jaiak!*




Zorionak elgoibartar guztiei  
Udalaren izenean



KULTURA SAIALA



FORU ALDUNDIA



euskadigaztea

## DISKO FESTA

Foruen Plazan

Ekainak 5

00:30ean



FORU JAURLARITZA